

2017KO URRIAREN 26AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita sei.

HILABETEA: Urria.

URTEA: Bi mila eta hamazazpia.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak laurden gutxiagotan

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Aitor Aldasoro Iturbe.

BILDUAK: Leire Artola Ugalde

Malu Valles Fernandez

Koldo Agirre Mujika

Miren Amaia Barandiaran Velez de Mendizabal

Santiago Urdampilleta Dos Santos

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2017ko irailaren 28ko akta onartzea.

2017ko irailaren 28ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- OBRA ZIURTAGIRIAK: 3. ziurtagiriak:

Aho batez, ondorengo erabakia hartu da, Lurralde batzordeak proposatuta:

- Zazpiturrieta kalea berrurbanizatzea: onartu da 3. ziurtagiria, 43.931,87 €ko kopurua duena.

- Nekolalde kalea berrurbanizatzea: onartu da 3. ziurtagiria, 20.446,45 €ko kopurua duena.

3.- GURUTZE GORRIKO ESKAERA: Igartza Oleta 10ean Gurutze Gorriaren erabilpenerako, Udalak ordaindutako egokitzapen gastuen konpentsazio aurreratua egiteko.

Aho batez eta Antolakuntza batzordeak proposatuta, ondorengo erabakia hartu da:

“AURREKARIAK

1.- Gobernu Batzordeak 2013ko abenduaren 20an egindako bileran, Beasaingo Udalaren eta Gurutze Gorriaren arteko hitzarmena onartu zuen eta bere bosgarren estipulazioan ondorengo xedatzen da:

“Udalak Igartza Oleta 10ean egindako egokitzapen gastuei erantzuna emanez, Gurutze Gorriak II eranskinean aurkezten diren zerbitzuak eskainiko ditu eta hiru hilabeteka konpentsazioak egingo dira aipatutako obren gastuak estali arte”.

2.- 2.017ko urriaren 9an Goierriko Gurutze Gorriko Eskualdeko Batzarraren Lehendakariak idatzia aurkeztu du Udal honetan, sinatutako hitzarmenaren ondoriozko zorraren konpentsazio aurreratura, igorritako edozein faktura, organismoen izenean bidalitakoak barne, II Eranskinean zerrendatu gabeak eta II BIS eranskinean zerrendatutakoak barne, aplikatzeko eskatuz, .

Egindako eskaria aintzakotzat hartuz eta zordundutako kopurua ahalik eta azkarren kitatzea udalaren interesaren aldeko jokabidea izanik, ondorengoa

ERABAKI DA

Goierriko Gurutze Gorriko Eskualdeko Batzarrak egindako eskaria onartzea eta, une honetan 16.717,52 eurokoa den zorraren konpentsaziora bideratzea, hitzarmenaren II eranskinean xedatutakoez gain, erakundeak helburu horretarako aurkezten dituen gainerakoak. Hau honela izanik, zorra aurtengo ekitaldian kitatuta gera litekeenaren aurreikuspena egiten daiteke.”

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakori aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpitan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.